



9. AZTERKETARIA

AZALPENA:

Hutsune batzuk izan dituen arren nahiko ondo eman du egokitu zaion testuaren berri. Zenbaitetan ideiak nahasian adierazi ditu, gehienetan antolatzaileak ez dituelako behar beste eta behar bezain ondo erabili.

Bere euskalkira jauzi ez egiteko egin behar duen ahaleginak asko eragozten dio diskurtsoaren antolaketa, eta zenbaitetan egitura traketsak erabili ditu.

Jariora natural samarra da, baina ahoskeran baditu akatsak.

Puntuazioa: 11

ELKARRERAGINA:

Elkarrizketan bere buruari euskalkian egiteko baimena eman dio (ziurrenik solaskidearekin aurretiaz adostuta), baina zenbaitetan mesede baino kalte egiten dio, euskalkiko eta batuko formak nahasian erabiltzen dituelako. Freskotasunean eta bat-batekotasunean irabazten duenak zuzentasuna eta koherentzia kaltetzen ditu.

Egokitu zaion tesia polito defendatzen du, eta badaki emandako heldulekuak baliatzen. Solaskidearen hitzak ere aintzat hartzen ditu eta gai da hari erantzuteko, bai arrazoia emateko eta baita ukatzeko ere.

Puntuazioa: 12

C1 ahozko probak eskatzen duena betetzen du.